

...eta **kitto!**

697 zkia. 2009-XI-6

ASTEKARIA



Herritarrei bidea errazten

JUBILATUENTZAKO KANPAINA

MULTIOPTICAS

T.A ZERBITZU OPTIKOETAN


ERREKALDE 2 • TEL. 943 99 95 99 • EIBAR

www.multiopticasgipuzkoa.com



Erretinatik erretinatara
Luzerako kontaktua
baita ere kontaktua
guztiak batera

* Antzerkiak, operak eta abar,
kultura berria lehenik.



Irailetik aurrera 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**



**AUTO
ESCUELA**

CURSOS INTENSIVOS

**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



**Soraluzeko
Gaztañerre azoka
09**

Azoka Eguna, azaroak 14

Goizean zehar: Baimentzen eta artizainen azoka, kale antzezak, dantzak, umertzat jolask...

15:00etan: Herri babajano eta karri saioa karpas, burtxela iratxo, Arrosa, Gila, Piriñan edota Gantzerri saioa.

19:00etan: Erromentri Xoro Niretzekin. Herriak karran dantza.



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKTETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

Maialen Belaustegi, Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen

aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten enshera

EZKATU/ESKATU.- Askatu. "Ezkatu guran korapillua, haundixagua laga eban".

EZKERRERAKO.- Ezkertiarra. "Bere bizi guztian izan zan ezkerrerakua".

EZKUTATZEN EGIN.- Ezkutuka ibili. "Berrogei kontau eta ezkututzen egin deigun afaittarako ordura arte".

EZKUTUKA.- Kubika, ume jolasa. Gaztelarazko 'a escondites'. "Eskolako umiak giñanian ezkutuka ibiltzen giñan jolasian".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahal jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Antena batengatik, kontratu zaharretan urtero 700.000 eta milioi bat pezetaren artean ordaintzen dizkie operadora batek auzo komunitateei. Gaur egun, 13.000 euroraino ordaindu dezakete urtero. Konpainia horiek zenbat irabazten duten? Epaketa batean onartu behar izan zuten, 6.000 euroko sarrerak egunero"


(Alberto Arrate, abokatu)

"Neolitikoa ere zientzia prozedurak bazeuden, eta pentsamendu analitikoak. XX. mendean zientzia asko aurreratu da eta horrekin, berez, gero eta amildegi handiagoak irekitzen zaizkigu, aurkikuntza bakoitzak hamar arazo gehiago erakusten dizkigulako eta, beraz, gizakiaren ahaleginak porrotera garamatza. Baina horrela behar du"

(Claude Levi-Strauss, antropologoa)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

JENDE BILA DEPORREKO TABERNARAKO

Eibarko Klub Deportiboak Toribio Etxebarriako bere egoitzan duen taberna kudeatzeko jende bila dabil. Interesa duenak eguen eta barixakuetan Deporrera jo dezake, 18.30etatik aurrera. Bestela, e-postaz info@deporeibar.com helbidera idatzi daiteke edo Zuzendaritza Batzordeko edonorekin berba egin dezake. Proposamenak aurkezteko epea azaroaren 13an amaituko da. Bestalde Klub Deportiboaren Gabonetako loteria, aurten Deporreko tabernan bakarrik egongo da salgai.

GAZTETXEAREN DOANEKO DENDA

Zapatu eguerdian, 12.00etatik 14.00etara doaneko denda berezia ipiniko du martxan Tallarra gaztetxeak Urkizuko parkean (euria eginez gero, Azpirineko etxeen azpiko arkupeetan). 'Nahi baduzu ekarri edo nahi baduzu eraman' esaldiari jarraituta, nahi duenak etxean dituen gauzak eraman ditzake dendara eta, modu berean, dendan dagoen edozer etxera eramateko aukera izango du jendeak. Zerbait eraman ahal izateko ez da beharrezkoa beste zerbait dendan lagatzea.

Egunkariaren aldeko kamisetak eta bonoak

HILABETE HONETAN EGUNKARIAKO AUZI NAGUSIAN AUZIPETUTAKO BOST LAGUNEI EPAIKETA EGINGO DIETELA-ETA, Egunkariaren Aldeko Plataformak hainbat ekimen antolatu ditu. Atzo bertan hitzaldia eskaini zuen Joan Ma-

ri Torrealdai Arrate Kultur Elkartearen. Torrealdai, Txema Auzmendi, Iñaki Uribe, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleagarekin batera auzi nagusiaren inguruan epaituko dute, Espainiako Auzitegi Nazionallean. AVT eta Dignidad y Justicia elkartearen akusazio soilarekin egingo den epaiketan 12 eta 14 urte bitarteko espetxe-zigorra eskatuko dute lagun bakoitzeko. Epaiketa zein egunetan hasiko den zehazteke badago ere, Eibarren Egunkariari babesa agertzeko talde-argazkia ateratzea aurreikusita dago. Horrez gain, ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuartera) kamisetak eta laguntza-bonoak ipini dituzte salgai, 10 eurotan bakoitza.



50 urtekoen bazkari arrakastatsua

ONDO BAINO HOBETO IGARO ZUTEN ZAPATUA 1959-AN JAIOTAKOEN BAZKARIAN parte hartu zutenek. Aurten 50 urte bete edo beteko dituzten 150 bat lagun elkartu ziren, eguerdi aldean tabernarik taberna txikiteoan ibili eta, ondoren, bapo bazkaltzeko.



ABC-koen manifestazio jendetsua



ZAPATU EGUERDIAN UNTZAGATIK ABIATU ZEN MANIFESTAZIOAK JENDE UGARI BATU ZUEN. 'Diru publikoarekin despidorik ez' zioen pankartaren atzean bildutakoek Azi-taingo industrialdeko konpresore enpresako zuzendaritzaren jarrera salatu nahi izan zuten; enpresa batzordeko ordezkarien ustez, zuzendaritzako kideek "enpresa ixten" eta produkzioa Txina eta Brasilerara desbideratzeko ahaleginetan dihardute.

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 fax: 943 202564

Montekasinon egindako operazioaren salaketa

ORAIN DELA PARE BAT AS-TE, ERTZAINZAK MONTEKASINO TABERNAN ZEUDEN EUSKAL PRESO POLITIKOEN ARGAZKIAK KENDU ETA ERAMAN ZITUELA eta, tabernan zeuden lagunak identifikatu arazi zituztela azaldu eta salatzekeo prentsaurrekoa eskaini zuten eguaztenean Eibarko ezker abertzaleko ordezkariak. Agerraldian argitu zutenez, gainera, identifikatu zituzten lagunetako biri, *“inputatu eta Espainiako Auzitegi Nazionalera eramateko mehatxua egin zieten”*, tabernan zeuden lekukoak berbetan.

Montekasinon gertatu zen bezalako ekintzen bitartez, *“euskal gizartearen sustengu*



zabala duen lan politiko eta soziala kriminalizatzeko estrategian jarraitzen du espainiar estatuak”, ezker abertzalearen iritziz. Horren harira, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen erredaktoreak urriari preso politikoen argazkiak erakustea ez dela delitua

adierazi zuela gogoratu zuten. Zentzu horretan, *“errepresioaren aurrean, berau jasan behar duguneko eten gabeko elkartasun lana ezinbestekoa da, eta zentzu honetan kriminalizazio dinamika horren behin betiko amaiera exigitzen dugu”*.



Felix Morquecho

Ingeniariak

Gaur egun obra mordo dauzkagu aukeran, baina Torrekoa aldeko batek biltzen ditu “ingeniari” gehienak. Ez dute fitxatzen, ez dute ordutegirik; baina, pasatzen zaren bakoitzean, han daude. Obretan adituak dira gehienak eta normalean isilean eta trankil egiten dute euren lana: dena aztertu, begiratu, komentariotxo bota... Baina, hitz egiten hasiko balira, seguru iritzi bakoitza desberdina izango litzatekeela. Ez da hau Eibarren daukagun “obra” bakarra. Barrenengua kalea gora hartu eta, Isasi jaisten badugu, Astelena frontoira ailegatuko gara. ¡Katedrala! Zenbat denbora eman dugu triste, Eibarko frontoi historikoena itxita zegoelako. Askok pentsatuko zuten berriro irekita ez zutela ikusiko. Baina orain hezetasun arazoak agertu dira. Pelotariak ailegatu dira eta... usaina, arrastoak... Berria komunikabideetan azaldu da. Hortik aurrera, “ingeniariak” agertu dira berriro, baina kasu honetan desberdinak: *“Kriston hezetasuna”*, *“ez da hainbesterako”*, *“teilatua aldatu egin behar da”*, *“garbitu eta gero, berehala konponduko da”*... etabar. Gertatzen dena da ingeniero horien artean denak ez direla jubilatuak, eta badaude neurriak hartu beharko luketenak. Bitartean, egunak aurrera doaz eta, pilota munduan, Astelenaren itxura txarra ahoz-ahoz zabaldu da dagoeneko.

Udal Artxiboaren instalazio berriak zabalik

EIBARKO UDAL ARTXIBOAK INSTALAZIO BERRIAK ZABALDU ZITUEN ASTELEHENEAN, UDALETXEKO 4. PISUAN. Hilabeteetako lan eta lekualdaketen ostean 750 metro karratu dauzka artxibo berriak, dokumentuen lerrozko 1.400 metro jasotzen ditu eta testuak kontsultatzeko fondo mikrofilmata dauka. Dokumentuak biltzeko lau gordailu independente ditu udaletxeko instalazio berriak, lanerako gune bi, argitalpen eta ikerketak kontsultatzeko 240 metro karratuko gela bat, eta gai historikoen gaineko informazioa duen

liburutegi bat. Gainera, aldizkako erakusketetak antolatzeko 115 metro karratuko espazioa dauka zentro berriak.

Agiriak Bergaratik bueltan

Udal Artxiboak Bergaratik ekarritako 158 dokumentazio kutxa berreskuratu ditu, 1537 eta 1866 urteen bitarteko 3.477 bat espediente. 2006ko maiatzean Bergara eta Eibarko alkateek sinatu zutenez, Debagoieneko herri horretan gordeko ziren dokumentu guzti horiek Udal Artxibo berria egin arte. Bergaratik ekarritako dokumentazioa Eibarko Eskribaute-



giari zegokion. Eskribauek auzi eta idatzi publikoetan fede judicial eta extrajudiciala emateko funtzioa zeukaten.

Autoenplegu sentsibilizazio jardunaldia UNlan



IES UNI EIBAR-ERMUAK AUTOENPLEGU SENTSIBILIZAZIO JARDUNALDIA JASO ZUEN ORAIN EGUN BATZUK. Ekintza honen bitartez kultura ekintzailea laguntzeko oinarriak zehazten saiatu ziren antolatzaileak, eta hezkuntzaren munduan pertsona ekintzaileak duen papera landu zen. Vanesa Hortas Enpresa Proiektu Berrien Laguntzarako Departamenduko arduradunak koordinatu zuen ekintza, eta Debegesako Aitziber Cortazar, Itziar Elustondo eta Ainhoa Lazkano izan ziren jardunaldian

asteko
360
datua

kilo zabor sortzen ditu urtean, bataz beste, Debarrenako bizilagun bakoitzak, ia kilo bat eguneko. Zaborraren %82 etxeko zabor organikoa da. Portzentaia txikiagoan jasotzen dira papera eta kartoia (%7'5), beira (%6'5), ontziak (%1'5), jantziak (%0'82) eta obra-hondakin eta egurra (%1).

EGO IBARRA BATZORDEAREN WEBGUNEA GOITIK BEHERA BERRIZTU DUTE, ATAL BERRIAK GEHITUTA eta lehendik zeudenak ere landu eta sakondu egin dira, dokumentu eta ikus-entzunezkoekin. Webguneari gehitu dizkioten atal berrien artean, besteak beste, Eibarko eraikuntzei eskainitakoa dago: *“Atal horrek herriko eraikuntza nagusiei buruzko datuak eta jakin-garriak ematen ditu eta denborekin hornitzen joango gara. Bestalde, gastronomiak bizpahiru atal ditu: Felisa Loiolak Goi Argi elkartearen erakutsi zuten sukalde-errezeta zaharrak, Eibarko Saturnino Diego inprentan 1921. urtean kaleratutako ‘Manual del arte de Cocina’ liburua eta 1996. urtean kaleratutako ‘Eibarko Elkarte Gastronomikoak’ liburuko errezetak. Gainera, edozein eibartarrek familia-errezetaren bat*



bertain laga eta argitaratzeko aukera du”.

Eibartarrei eskainitako atala


Horrez gain, gure herriko kaletan ditugun pertsona izenen biografia laburrak sartu dituzte, *“batipat gazte jendeari begira”*. Eta pertsonaiekin jarraituta, Eibartarrak izeneko atala bitan banatu dute: *“Alde batetik ‘herriko seme kutun’ edo ‘semetzakotzat’ hartu izan direnak*

daude eta, bestetik, hainbat eibartar ezagun eta ez horren ezagunen biografiak jaso ditugu, eurek emandako datuekin, eurek nahi dutena azalduta”.

Argazkiei euren atal berezia eman diete webgune berrituan, orotariko irudiekin: Eibar airetik hartuta, emakumeak, gerrakolak, propagandakoak... Atal berriez gain, lehendik zeudenetan ere hainbat gauza berritu eta hobetu egin dituzte.

Oin dala hamar urte

1999-XI-5 / 292. ZKIA.



- Markeskua jauregixa zertarako erabilli aztertzen hasi ziran Udalian urtebete lehenago Herrialdeen Europa izeneko instituziño pribatuari laga eta gero azken honek ez ebalako ezertarako erabilzen ikusitta.
- Calbeton kaliaren alde batian eguan Bilbo Zahar kaletxua ixtia erabagi eban Udalak. Aspalditik eguan asmo hori, zikinkerixia eta katu mordua pillatzen ziralako bertan. Kalia ixteko, ate modokua ipiñi eben.
- “Eibartarren Ahotan” izeneko proiektua ziharduten aurrera eramaten Itziar Alberdik eta Asier Sarasuak. Jasotako jendiaren testimonixuekin, Egoibarra batzordiarekin alkarlanian, liburua kaleratu eben gero.
- Iñaki Zuazo atleta haundixa izandakua hil zan. Kirola lagata be, bolondres moduan jarraitu eban antolaketa lanetan eta epaille gisa kolaboratzen. Kirol Sarixetako Sari Berezixa jaso eban aurreko urtian.

Oin dala 365 egun

2008-XI-7 / 655. ZKIA.

- Aralar alderdixari erantzunez, Erisonon irregulartasunik ez eguala emon eben jakittera gobernu batzordiarene ordezkarixak eta Teknikerrek Lurzoruaren Legiak errespetatzen zittuala jakiañarazi.
- Antxiñako Eibarko irudixekin proiektziñua prestau eban Ego Ibarrek Coliseorako. Irudixak iturri bittik lortutakuak izan ziran: NO-DOtik batzuk eta Antonio Sarasua eibartarrak grabautakuak bestiak.
- Jone Uria eta Miren Gisasola gaztiak lehelengo eibartarrak izan ziran Euskal Herriko Trikitilari Gaztien txapelketan parte hartzen. Beste sei bikoteren aurka jardun eben Azkoitian jokaturako lehiari.
- Eibar Foball Taldiak Anoetan jokau eban Realaren kontrako partiduan, bana berdindu eban. Irabazteko okasiñuak be izan eben eibartarrak Diaz de Ceriok lesio larrixa izan eban partiduan.






Baute El Corte Inglés-aren aurkezpenean

EL CORTE INGLÉS BERRIA HILABETEA AMAITU AURRETIK ZABALDUKO DUTE ETA INAUGURAZIOAN CARLOS BAUTE Venezuelako abeslari ezagunak parte har dezan tratuan dihardute merkataritza guneko arduradunek. Inaugurazio ekitaldia hilaren 27an egiteko asmoa dute eta, Baute ekarrita, ekitaldiari ahalik eta ohiartzunik handiena ematea bilatzen dute. Ondas saria jaso berri du Carlos Bautek eta

Marta Sánchez espainiarrarekin abestutako 'Colgado en tus manos' lanak arrakasta handia izan du. Bauterekin akordio komertziala dauka El Corte Inglések, beraz, bai Eibarko merkataritza-zentru berria, bai abeslaria promozionatzeko baliatu nahi du El Corte Inglésekin. Albacete eta Salamancan irekitako denda berrietan ere pertsonaia famatuak izan ziren, Eibarren egin nahi denaren antzerako ekitaldietan.

Turismorako praktika onen programa

AZAROAREN 11AN, ARRATSALDEKO 16.30-ETAN, DEBEGESAKO EGOITZAN BASQUETOUR ETA EUSKALITEKO ORDEZKARIEK Turismoarentzat Praktika Onen Programaren aurkezpena egingo dute. Hortik aurrera eman beharreko pausua prozesu guztia martxan jarriko duen taldea osatzea izango da. Hainbat fase dituen programa bizia izango da eta, besteak beste sentsibilizazio jardunaldiak, formazio-saioak, lan-tailerrak, enpresetara bisitak... egingo dira. Helburua gure eskualdeko establezimendu turistikoaren antolakuntza eta barne kudeaketa hobetzea da. Debegesak parte hartzen duten enpresei laguntzeko pertsona bat jarriko du eskura. Urte bakoitzaren amaieran, kalitate turistikoarekin establezimenduak duen konpromisoaren agiria jasoko dute parte hartzen duten enpresek. Informazio gehiagorako edo azaroak 11eko jardunaldian parte-hartzeko, 943820110 telefono zenbakira deitu daiteke.



anzorik anzo



EB-Aralarren dossiera Txontako akatsekin

Ezker Batua-Aralar koalizioak dossiera egin du Txontan dauden akatsen gainean. Urriaren 7an Txontan izan ziren koalizioaren zinegotziak eta, bizilagunen laguntzarekin, bertako akats eta urritasunen gainean dossiera landu du. *"Akatsok kontuan hartzea nahiko genuke auzoaren berritze-proiektua garatzerako orduan"*. Dossierrean agertzen denez, hiri-altzariak falta dira (*"zakarrontzi bakarra dago Aguiñaspi tabernatik Txonta 17-raino"*), autobide azpiko zabortegea garbitu eta txukundu beharko litzateke, Solac fabrikaren hondarretatik alboko etxeetara igaro daiteke, Txonta 44-an zulgune arriskutsua dago, ez dago ia aisialdi gunerik eta 39. zenbakian dagoena zikina eta zaharkitua dago, etxeetatik kable asko dago eskegita, argitasun falta dago eta ez dago TDT hornidurarik, besteak beste. EB-Aralarrek uste du auzoaren berriztatze-proiektu serioa egin behar dela. *"Aurreko planak gelditu egin dira eta proiektu berria gauzatzeko hainbat urte beharko dira. Ezin da urte guzti horietan auzoa horrela geratu"*. Era berean, auzoaren berriztatze-proiektu berrirako, *"egiten bada"*, auzolagun guztien partaidetza sustatzea eskatzen du koalizioak.

eibar kalea

Armagin kalea

Kanposantu inguruko kale honek gure herriari izaera eman dion lanbideari zor dio izena. Eibarren armak egiten zirela idatziz jasotzen duen lehenengo agiria 1482. urtekoa da, Medina Sidoniako dukeak aginduta egindako lonbarda biren berri ematen duen dokumentua, baina seguruenik armagintza lehenagotik lantzen zen Eibarren. Lanbideak izan duen garrantziarengatik ez da harritzekoa armaginei kalea eskaintzea.

Pegora kopurua: 3. Erroldatutakoak: 194.



Afrikan, Ganbiako hiriburuko auzo batian biharrian diharduen Gobernu Kanpoko Erakundia da La Sonrisa de África. Oier Zuloaga eta beste eibartar batzuk talde horrek umien alde egitten diharduan biharra zuzenian ezagutzeko aukeria euki dabe, bertara egindako biaje batian. Ointxe eibartarren eskuzabaltasunaren premiñan dagoz. Gure etxietan erabilli barik egon leikiazten josteko makiñak Ganbiako bizilagunen bizimodua goititik behera kanbixatzeko aukeria emoten dabe eta.

Josteko makiñak, Ganbiari irrifarra eragitteko

Banjul da Ganbiako kapitela eta bertako Bakotek auzuan laguntza eskintzen dihardue La Sonrisa de África Nafarroako Gobernu Kanpoko Erakundeak. Boluntariak bertan egitten diharduen biharri esker, oin dala gitxira arte hango zabortege batian eguna emoten eben 200 bat umek eskolara jua eta egunero jateko aukeria dake, Zuloagak bertatik bertara ikusi eban moduan: “Jendiak apadrinatuko umiak eskolara juateko aukeria dake, eskolarako uniformiak eta bestelakuak erosten jakuez eta egunero bokadillua emoten jakue, gitxienegunian behin zeozer jaten dabela ziurtatzeko”.

Eibartarrak azaldu deskuenez, “ume horrek behartsuenen artian behartsuenak dira eta laguntasuna jaso ezian ezin dabe eskolara jua. Baiña horri bueltia emoteko proiektu

bat martxan ipiñi nahi dogu: La Sonrisa de África josteko-taillarra. Izan be, taillarra sortu eta umieri josteko-makiña bat zelan erabiltzen dan erakutsita, ezer ez daken horren bizimodua guztiz kanbixatzia posible dala ikusi dogu, lanbide duin bat ikasitta eta euren herrialdian etorkizuna dakan biharrian jardunda”.

Eibartarren eskuzabaltasunaren premiñan

Eskola-taillarra martxan ipiñi ahal izateko, baiña, josteko makiñak bihar dittue. Zuloagaren berbetan, “herri gitxitan egongo dira Eibarren bezain beste josteko makiña, etxian gordeta, nostalgia hutsarengaittik edo amamarena izan zalako gordeta, erabilli barik. Ointxe makiña horrek atzera be erabilgarrixak izateko aukeria eskintzen dogu, Ganbiako ume horren bizimo-



duak kanbixatzeko eta etorkizun hobia euki deitzen aukeria emonda. Gobernu Kanpoko Erakundiak Spanair hegazkin konpaiñiarekin dakan konpromisuari esker, josteko makiñak Ganbiaraiño eruatiaz eurak ardurauko dira. Eskolara juateko aukerarik izango ez daben neska nagusixeneri josten irakatsi



eta etorkizuna badakela erakutsi ahal izateko josteko lau makiña besterik ez dogu bihar. Baten batek erabilli bariko makiñarik badaka, berdin detsa pedal bidezkoa zeñ elektrikua izan, gurekin kontaktuan ipiñi leike (635734261 telefonora deittuta) eta gu juango gara makiñaren billa bere etxera. Denpora gitxi

dakagu, hillaren erdialderako Ganbiara eruateko makiñak jasota euki bihar dittugulako”.


Josteko makiñen zain

Josteko makiña horrekin bizimodua kanbixau leikien umiak zain dagoz, bakotxa bere istorixarekin: “Mamme Sanneh izeneko neskia mandinka etniako alabia da, sei neba-arreben artian nagusiña. Amak laga egin zittuan oin dala 5 urte, txikixena jaixo eta segiduan eta harrezkeroko alaba nagusixak daka beste guztien arduria. Ardura hori dala eta, ezin da eskolara jua. Kaddy Bahk 14 urte ditu eta oin dala gitxi Mariah izeneko alabia erditu eban, baiña ezkondu barik daguan famelixak baztertu egin dau eta eskolako zuzendaritzak be ez detsa klasera juaten lagatzen, beste nesken dako adibide txarra izango dala lakuan”. Josteko makiña euki barik be, proiektuaren gaiñian gehixago jakin nahi dabenak www.lasonrisadeafrica.com helbidera jo leike. Umiak apadrinatze bida be bertan topauko dau.




Gipuzkoako Ogasunak telefono zerbitzu bat eskaintzen dau herritarrek iruzur fiskalak salatzeko. Holan, baten batek beste batek iruzurra egin dabela badaki, salatu egin ahalko dau. Horren bittartez iruzurrak egittia murriztia nahi da Gipuzkoako Ogasuna edo Rentakuen berbetan.

Iruzurra egin daben jendia salatuko zeunke?



IÑIGO ESTEIBAR
33 urte
bihargiña

Nik salatuko nittuzke, seguru. Gauza asko kontrolau bihar dira zerga kontuen gaiñian, baina begittantzen jata danok bardiñ errespetau bihar dogula Ogasuna. Danak zulo beretik pasau bihar gara eta danok egin bihar dittugu gauzak bihar dan moduan.




ESTELA ALVAREZ
62 urte
etxeoandria

Jakingo baneuke baten batek iruzurra egitten dabela, salatuko neuke. Batzuk iruzurra egin nahi barik be harrapau eta ordaindu arazi egitten detse, holan, nahitta egitten dabeneri arrazoi haundi-xaguakin salatu bihar jake. Nik, behintzat, salatuko neukez.

CARINA LOPES
24 urte
bihargiña

Pentsatzen dot iruzurra egitten dabenak salatuko nittuzkela. Ezagutzen dittut portugaldar batzuk hemen parua kobrau eta Portugalen lanian dabizenak. Txarto begittantzen jata hori, ni hamen lanian nabil eta pentsatzen dot eurak iruzurra egitten daguazela.



JOSE ALBERTO IRIONDO
65 urte
jubilaua

Ogasunari iruzurra egitten dabena ondo egitten dabela begittantzen jata, izan be, eurek be ordaintzen deskue guri. Nik ez nittuzke salatuko, ez jata txarto begittantzen egitten dabena. Gaiñera, nahikua arte daka Ogasunari lapurtzen detsanak, gero atzetik salatzen juateko.



Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ **943 12 02 00** Fax: **943 12 02 04**

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza

BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951


Herrixan ibiltzia ahalik eta errezen izateko helburuari jarraituz, Udalak datozen urtiotan garatzeko moduko irisgarritasun plan barrixa onartzeko asmua daka. 9 millioi euroko aurrekontua biharko dabela aurreikusten dabe Udal arduradunak, irisgarritasun kontuetan adittua dan enpresak idatzitako txostenak jasotzen dittuenak martxan ipiñi ahal izateko. Etorkizunian herrixan ibiltzian bidian jendiak trabarik ez topatzia billatzen dabe eta hori lortzeko neurriak hartzeko gertu dagoz.

Oiñezkuendako herrixa preparatzeko bidian

Eibarko orografixia eskasa dala hamaika bidar entzundakuak gara eta horrekin justifikau nahi izan dira herrixan daguazen aldapa eta eskillara ugarixak. Halanda be, sasoi bateko Eibarrek eta gaur egunekuak arlo askotan zerikusi gitxi daken moduan, arlo honetan be gauzak kanbixatzeko moduak badagoz, Adir irisgarritasunian adittua dan enpresak egindako estudixuak jasotzen daben moduan. Estudixo horretan jasotakuak ardatz izango daben akzesibilidade plan barrixak oso modu zihetzian azal-

tzen dittu herrixan arlo honetan hobetu biharrekuak zeintzuk diran. Kalietako akzesibilidadia ez eze, seiñalizaziñua, herriko eraikin publikuak, espaloiak, herriko altzarixak eta bestelakuak hartzen dittu kontuan txostenak, garraibidiak ahaztu barik.

Estudixuak proposatzen dittuan kanbixuak izaera ezberdiñia dake: kale batzuetako izaeria kanbixatetik, espaloiak zabaltzeraiño, traba egitten daben elementuak kaletik kentzeraiño, edo eskillara mekaniko barrixak ipintzeraiño doiaz proposamenak.



Kaliak goitik behera aztertzen

Proposamen horrek egiñ aurretik, baiña, txostena eratze-ko pausuak emon dittue. Bate-tik, zuzeneko ikerketia egin dabe, kalia ibillitza eta ikusit-tako gabezia zein akatsak jasota: 28 kilometrotik gorako ibilbidia izan da guztira, herri-ko kalietako 28.678 metro hain zuzen be, espaloiak, errepide zatixak, plazak eta bestelakuak barne. Holako ibilbide luzian topautakuak asko izanda be, danen artian garrantzi gehixago daken batzuk bada-goz. Esate batera, oiñezkuendako baduetan hutsune haundixa topau dabe. Oiñezkuen mobilidadiarendako garrantzi ikaragarrixa daken elementu horrek 500 puntutan baiño gehixagotan txarto diseiñautakuak dira edo, beste barik, ez dira esistitzen. Horri toki askotan espaloiak rebajau barik daguazela gehitu bihar jako eta beste hainbat tokittan, gaiñera, zebra-biderik be ez dago.

Espaloi estuegixak

Espaloi zabaleriakin be arazo bat baiño gehixago sortzen da. Obra barrixak egitten

diran neurrixan espaloiak lehenguak baiño zabalaguak egittetako ahalegiñak egitten badira be, oindiok be kale askotan gata da espaloitik urten barik ibiltzia, batez be umien kotxiekin, erosketa karruekin edo bestelakuekin ibilli bihar izanez gero.

Gaiñera, espaloi barruan farolak, zuhaitzak edo bestelakuak traban egon ezker, askotan zuzen jua barik elementuak ahal dan moduan saihesten jua bihar izaten gara oiñezkuak, behin baiño gehixagotan errepidera urtenda.

11 kilometro barandilla faltan

Gabezien zerrendiari begira ipiñiz gero, barriz, aldapa haundiko toki askotan, edo eskillara luzietan barandillarik ez daga-lan antzeman dabe. Irisgarritasunaren gaiñeko arauak ez betetziatz gaiñ, oiñezkuendako arrisku haundixa eragin leikie horrelako gabeziak.

Aittatutako honek oiñezko guztieri eragitten detsen kontuak izanda be, sensibilidade berezixa daken kolektibuak daguazela ezin leike ahaztu. Itsuak, elbarrixak, jende nagusixak... premiña zihetzeguak



Ikusmen arazuak dittuenendako seiñalizaziñua egokittu biharra dago, kalietan zein oiñezkuendako pasabidietan. Irudixan, ONCEko sensibilizaziño kanpaiñako ekimena. / S. HERNANDEZ

HOBETU BIHARREKO PUNTUAK

KALIAN

- Herriko kale batzuetako tipologia kanbixatza, peatonalak edo erabilleria mixtokuak bihurtuta.
- Espaloiak zabaltzia.
- Auzuen arteko komunikaziñua hobetzeko akzesu mekanikuen erabilleria (eskillarak/igogailluak).
- Espaloiaren rebajlak eta oiñezkuen baduak (500etik gora) moldatza eta egokitzia.
- Barandillak ipintzia, batez be aldapa haundixa daken kalietan.

ERAIKIÑETAN

- Elementu mekaniko zeñ igogailluak moldatza, legiari erreparatuta, batez be ikastetxietan.
- Elbarrituendako komunak sortza edo moldatza.

GARRAIUETAN

- Autobus geltokixan zeñ beste geralekuetan akzesibildadia hobetza.
- Seiñalizaziñuak egokitzia.
- Elbarrituendako aparkalekuak bihar dan moduan preparatza.

dittue eta, horregaittik, txostena idazteko orduan herrixan kolektibo horrek ordezkatzan dittuen alkartiekin alkarlanian jardun dabe, euren premiñak euren ahotik ezagutzeko eta euren proposamenak zeintzuk diran ezagutu eta jasotzeko.

Bestiak beste, plana idazteko billeretan elbarritu fisikuen alkarteko ordezkariak, Eibar-ko ONCEko bulegokuak, Afagi-kuak, Debabarrenako Nagusien Kontseillukuak, Nagusilane-kuak eta Deparkelekuak egon dira eta udaleko ordezkariak zeñ alkartietakuak alkarlanaren emaitzarekin pozik dagoz, "ikuspegi diferentia jaso ahal izan diralako eta hori beti aberasgarrixa dalako".

Adibidez, gehixenak konturatzan ez bagara be, herriko toki askotan edo gehixenetan, ikusten ez daban jendiandako aproposa dan seiñalizaziñorik ez dago.

9 millioiko inbersiñua

Inbersiño berezixa bihar daban kaliak be ziheztuta datoz txostenian: Sansaburu, Barre-

na, Bista Eder, Iparragirre, Juan Antonio Mogel eta San Andres. Beste toki batzuetan baiño karuaguak izango dira, baita, Aldatze, Barakaldo, Bittor Sarasketa, Jose Antonio Iturrioz, Zezenbide, Wenzeslao Orbea edo Zuloagatarren modokuetan egin biharrekuak. Kuriosidade modura, barriz, biharrezkuak diran barandilla guz-



tiak alkartuta 11 kilometro osatuko lirakez.

Espaloiak konpondu eta moldatziak be aurrekontuaren zati garantzitsu bat biharko dau: batetik, Guridi inguruan moduan, plataforma osuak eratza proposatzen dabe azterketa egin dabanak (hau da, espaloiak eta errepediak mailla berian ipintzia, eskalo barik). Holako ereduari segiduko detsen 770 metro karratuko azalera egittiaz gain, espaloiak zabaltzen eta konpontzen 975 metro karratu azalera jardun biharko dabe.

Mekanikuekin aurrera

Bestalde, azken urtietako martxari jarraitua, akzesu mekanikuekin aurrera egittia aurreikusten dau planak. Eskillara mekanikuak toki askotan erabilgarriak gertatuta be, elbarrituak eta umien kotxe zein karreuekin ibilli bihar dabanak behin baiño gehixagotan azaldu dabe kasu guztietarako soluziñorik ez dabela emoten eta pozik dagoz plan barrixan kalietan daguazan hainbat oztoporri aurre egitteko aukeria emongo detsen 9 igogaillu erakitza aurreikusitta dagualako.

02441
...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA

Loteria hartzailen artean, abenduaren 16an GABON-OTARRA zozketatuko da

salgai duzu:
Mujika harategia
Urkiñu prentsa
Bolintxo "Ibar-kurutze"
Zabaleta okindegia
Narria konplementuak
San Andres gozotegia
Askasibar kirolak
Kultu taberna
Valenciaga jantzidenda
Correos,
Udal Euskaltegia
AEK Euskaltegia
Isasi okindegia
Izadi loradenda
Untzaga prentsa
Dibutec fotokopiadenda

- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Razioak
- Kazuelitak

Egoqain, 5 - behea
Tel. 943 531 802

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com

UTHEMEK
UTILS Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANICADO, S.L.

SPK- Zeramika, silizioa
ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak
ROY - Diamante eta boraxezko hariak

TEEN-
AJEA



Jone Uribe, Miren Gisasola panderajolea lagun duela. Behean, azken Sagardo Egunean jardun zuen trikitilari taldea.



14 urte ditu eta bere mailan gazteena izan arren, Espainiako jabalina txapelketa bilakatu zen Arantza Moreno Prat del Llobregaten duela pare bat aste. Etorrizun handiko neska da Arantza, baina ez soilik jabalinaran, izan ere, atletismoko proba askotan aritzen da emaitza bikainak lortuz.

ARANTZA MORENO, atleta:
“Jabalina txapel honekin nire ametsa bete da”

- Espainiako jabalina jaurtiketaren txapelketa bilakatu zinen, kadete mailan, Prat del Llobregaten. Zer sentitu zenuen egindakoaz jabetzeaz?

Emozio oso handia. Poze zorrotzen ipini nintzen garaipena lortu nuela konturatu nintzen.

- Espero zenuen garaipena lortzea?

Egia esan, ez. Ahalik eta hobeto egin nahi nuen proba, baina benetan ez nuela espero Espainiako txapelketa lortzea.

- Lehen aldia da horrelako garaipen bat lortzen duzuna?

Espainiako txapelketa lortzen dudan lehen aldia da; hala ere, beste lehiaketaren bat irabazi dut, baina ez horren neurrikoa.

- Zein da zure hurrengo helburua?

Orain krossean nago zentratuta eta horretarako nabil entrenatzen. Ondoren, pista estaliko probak prestatuko ditut eta horren ostean aire zabalekoak landuko ditut.

- Izan ere, jabalinaz gain beste disziplina batzutan aritzen zara.

Korrika egiten dut proba ezberdinetan, pisua botatzen dut... Gehien gustatzen zaidana proba konbinatuak egitea da, izan ere, denak gustatzen zaizkit eta denetan nago eroso, beraz, proba konbinatuetan denak egiteko aprobeztatzen dut. Entrenatzaileak begi onez ikusten du hori egitea.

- Ez duzu pentsatzen disziplina batean zentratu eta hori buru-belarri lantzea?

Momentuz, ez. Gaztea naiz eta denbora daukat aurretik horretarako.

- Zein amets betetzea gustatuko litzaizuke atletismoaren barruan?

Esan daiteke nire ametsa bete dela. Izan ere, Espainiako onena izatea niretzat izugarria da eta horrekin imagina nezakeena bete dudala esan nezake.

- Eta Joko Olinpikoak, zer?

Oso urrun ikusten ditut, ez dut horretan pentsatzen.

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

BAMETSA

Toribio Etxebarria, 4

Etxeko janaria edonora eraman


Bizitzaren erritmoa azkarra da, dinamikoa, atsedenerako denborarik lagatzen ez duena askotan. Egunean gauza asko daude egiteko, eta jan? Noiz jango du jendeak? Eta beste kontu bat: nola jango du? Zer jango du? Bakoitzak gustukoena duena nahi duen lekuan jateko, 'Eramateko janaria' izeneko ikastaroa egingo da Portalean.

Tupperwarea delakoaren erabilera oso hedatuta dago gaur egun. Etxean egindako janaria beste nonbait jateko erabiltzen den kontserbazio sistema da. Beste modu batean esanda, etxeko sukaldea edonon izatea, sukaldean lortzen den emaitza, behintzat. Krisi garai hauetan, gainera, etxetik kanpo diru gutxiago gastatzeko kontuarekin, Tupperwarearen erabilera hazi egin da. Nabaria da hori, adibidez, Unibertsitateetan, non gazteek etxetik eramaten duten bazkaria.

Gurasoen etxetik kanpo bizi direnen tresna garrantzitsua da, baita ere, Tupperwarea. Normalean ahultasun ekonomikoa izanda, gurasoenean prestatutakoek betetzen dituzte euren hozkailuak, salbuespenak salbuespen. Ba guzti horientzat (eta interesa duen edonontzat), 'Eramateko janaria' izeneko ikastaroa hasiko da azaroaren 17an Portalean.

24 errezeta

Zortzi egunetan (azaroaren 17tik abenduaren 15era, astearte eta egunetan, 19.00etatik 21.00etara) erraz eramate-



ko eta berotzekoak diren janariak prestatzen irakatsiko die Unai Magunazelaiak parte-hartzaileei. Janariak Tupperwarean izotzeko nahiz egoera onean kontserbatzeko erak azalduko dira, Tupperwareare abantailekin batera. Izan ere, sistema honen bitartez janariak modu erosoan eta erraz kontserbatzen dira, eta alde batetik bestera zailtasun barik eraman daitezke.

Ikastaroak irauten dituen zortzi egunetan hogeitik gora errezeta ikasiko dituzte parte-hartzaileek. Besteak bestek, entsalada ezberdinak, curry eta arroz barazkiak, txanpi risotoa, kalabazin eta txanpizko espagetiak, urdaiazpiko eta arraultza pastela, hegaluzea piperradarekin, gazta eta urdaiazpikozko endibiak, beren-

jenak haragiarekin, yogur saltsadun oilasko hotza, tomate eta piparrezko, txitxarroa eskabetxearekin, oilaskoa eskabetxearekin, legatza tipularekin, fruituz beteriko izterrak, makailua eta enpanada.

Amantala eta trapua

Izen-ematea martxan dago azaroaren 2az geroztik eta hilaren 13ra arte egongo da aukera ikastaroan parte hartzeko (Pegoran egin behar da eskakera). Euskeraz eta gazteleraz emango dira klaseak eta 16 urtetik gorakoentzat dago zuzendua. Prezioari dagokionez, Eibarren erroldatutakoek 65 euro ordaindu beharko dituzte eta besteek 100. Ikastarorako, hala ere, parte-hartzaileek amantala eta sukaldeko trapua besterik ez dute eraman beharko.

La Movida eibarresa
Kirola atseginez
egunero Borja Rodriguezekin,
arratsaldeko 3etatik 4etara

90.7 Fm

Dentistak

odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala

miren albistegi sojo

arragueta, 2 - bis B
t. 943 208 330


T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAÑA

HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko
profesional talata
zure zerbitzura



Hortz, konplexua eta
komplikatu baretan
Hundelako kontrol...


PREBENTIBARRETA - Tel. 943 20 18 51

eibartarren irribarrea pizten



Bista Eder
DENTISTAK - HORTZ KLINIKA

Bista Eder, 19 - behea
Tel. 943 70 00 82
943 20 84 75



- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90



RPS 04/02

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

OSASUN

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia
ume eta
helduentzat**

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf: 943 120 200 - 943 425 706
www.marladoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO ZURIA-
RRAIN** RPS 336/05
ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekeraketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)

Tfnoa. 943 20 34 46

Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato
Eibarrés

**Errehabilitazioa
eta Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58

Estetika klinika



- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

abontza
clinica estetica

Egunero, 8. behea - Telf.-Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAGUETA, 20


FISIOTERAPIA
ZENTRUA
Tlf. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com



FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zbkia.

San Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

Juan Gisasola, 14
Telefonos: 943 12 70 78



GGDA

Kirol medikuntza

KIROL MEDIKUNTZA

Indartu
 ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Esfortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASBAGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio, 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
 Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net

Podologoak

- Kiropodia, gogortasunak eta kailuak
- Atzakal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
 124 kolegiatu zenbakia



HELBIDE BERRIA
 T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93

Psikologoak

AROR
 PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
 (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria 10 - 6. esk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
 Artakalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

Okulistak

OKULISTAK
 Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

OKULISTAK
 EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairutera
 Tfnoa: 943 20 19 82

PODOLOGOA
 Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

BIDEBARRIETA, 48
 EIBAR
 943 203050

ERDIKO KALE 54
 ARRASATE
 943, 799746

UME ETA HELDUENDAKO
 PSIKOLOGIA
 KABINETEA

Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
 TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
 a_garitaonandia@terra.es

Clínica Oftalmológica RECALDE
 Oftalmologi Klinika

Plaza Barría, 2 - 2º
 Tfnoa: 943 201 844
 www.clinicarecalde.com

PODOLOGOA
 Mainer Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologia klinika eta
 Psikoterapia zentroa

Ψ

Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
 Telf. 943 206823 eta 686 859023

PODOLOGO T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
 (Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Hemen zure tokia izan nahi baduzu
 deitu 943-206776 telefonora

Asier Serranoren**kolaborazioa****Itzuleraren itzulera**

Uther Novasch kazetari norbegiarra zendu dela jakin dut berriki. Uther aspaldi ezagutu nuen, berak hautatutako Milango desterruan, eta oroitu dut bere begiei begira, deserriaz idatzi nuela zerbait. Idatzi hura berrekartzera azkartu naiz:
“Nahiz eta hodei grisek ez zioten lurra bistaratzen uzten, segituan kokatu zuen hegazkinetik bere jaioterria. Aireportutik herrira zihoan bidea taxi zahar batean egin zuen. Herrirako sarrera kotxe ilara sendo batek ixten zuen. Taxistari oinez jarraituko zuela argitu zion. Tripa barrenetan hegaberak somatu zituen dantzari, eta birrikak arnasaz baino adorez beterik bere itzuleraren azken pausuak ematera ausartu zen.

Agi denez, memoriak eraman zituen aspaldian, haurtzaroaren babes ziren kale estuen arkupeak, haien orde zerruan galtzen ziren eraikin erraldoiak altxatzen ziren.

Zulo izugarri batekin egin zuen topo, espazioa bera ezerezean amildu zezakeen zuloa.

Belauniko jarri zen, otoitz egiteko baino, umezaroko garaieratik ingurua ezagutzeko. Gero, atzera bideari ekin zion irrifar etsi batez, iraganik gabe zerotik hasi behar duenaren poztasuna edo tristezia nahasean zebilkiola bihotzean”.

Utherrek itzuleraren sentimendu kontrajarri horri zion izua. Horregatik agindu zuen itzuliko zela. Itzuliko zela bai, ez ordea nola.

musika**Betagarri****Bizitzari txistuka**

Gasteizko taldearen lanak, aldiro, albiste onak izaten dira. Betagarri taldearen disko guztiek musikaz disfrutatu nahi duen publiko zabalaren gogoarekin erabat asmatzen jakin izan dute. Jarreraz gain, musikaren eraginkortasuna merkatua ireki die gasteiztarrei, urtetik urtera entzuleak gehituz, mugak irekiz, asmoak nonahi eraberrituz...

**Gose****Gose III**


Gose taldea hirukoa da eta 2004an sortu zen Arrasaten. Gose taldea hirugarren lanera iritsi da. Gose denari jateko ordua ailegatu zaio. Gose taldea musika jateko, Euskal Herriko triki-pop musika eta, tradizioa iraultzeko, musikari berrikuntzak ezartzeko eta bide berriak urratzeko sortu zen, eta gainera, plazer handiz.

**Xabier Lete****Egunsentiaren esku izoztuak**

Hamasei urte argitaratu egon gabe, Xabier Letek inoizko poesia bildumarik bereziena osatu du. Bizi esperientziatik ondu eta idatzitakoa, iragan ederrarekiko miresmena, maitasunaren gauzaguneak, xamurtasuna, oinazea, heriotza eta birraurkikuntzaren ametsa elkarri lotuz. Unibertsal diren sentipen, arrangura eta eremuak, poesiaren gailurrean.

Jasone Osoro
Ezekiel

Ezekielek hamalau urte ditu. Etxean amarekin eta arrebarekin bizi da. Aitak etxetik alde egin zuen, eta ez du hartaz oroitzapen askorik. Hamalau urteko mutil gehienek bezala, bitzta bi partetan banatuta dauka; batetik etxeko istiluak daude, eta bestetik kanpoko giroa: eskola, lagunak, koadrilaren lokala eta ... neskak.

**literatura**

Maridaje jardunaldiek gaur izango dute hasiera Krabelin jatetxean. Bertan, Muga ardoekin batera, Gipuzkoako Chef handi bi izango dira: Roberto Ruiz eta Joxean Eizmendi.

ROBERTO RUIZ (Frontón Jatetxea):

“Produktua prestaketa baino garrantzitsuagoa da”

- Zer da, zehazki, maridaje jardunaldietan egingo duzuna?

Pare bat plater egingo ditugu Illarra jatetxe-koekin konpartitutako gunean. Plater bi egingo du bakoitzak. Gure kasuan onddo eta orein arroz krematsua, eta modu tradizionalen gisatutako uso erregosia prestatuko ditugu.

- Illarra jatetxeko Joxean Eizmendi eta zu zeu izango zarete sukaldean batera. Zer iruditzen zaizu berarekin lan egitea?

Oso ondo dago. Ezagutzen dut eta erraza izango da berarekin lan egitea. Zerbait erraza egiten saiatuko gara, izan ere, jende asko joango da afaltzera eta zaila da hainbeste jenderentzat afaria egitea. Ondo koordinatu beharko gara eta elkarri lagundu. Janaria modu egokian heldu behar da jankide bakoitzaren gana, guk nahi dugun moduan, eta zaila da hori.

- Ehiza kozinatzea egunerokoan normalean prestatzen dena baino zailagoa da?

Ehizak sustraitze handia dauka Euskal Herrian, inguruan edonork dauka ehizan dabilen norbait, beraz, hemengo sukaldeetan ehizaren presentzia ez da arrotza. Produktuaren kalitateak garrantzia handia dauka. Adibidez, ez du edozein usok balio, izan ere, ehizatutako animaliek ez daukate inolako osasun erregistrorik, beraz, neurri batzuk behar ditu kozinatu baino lehen.

- Nola lortu daiteke maridaje perfektua?

Maridaje teknikoki perfektua honakoa betetzen denean ematen da: zerbait jaten duzunean edandakoa sentitzen ez duzunean, eta zerbait edatean jandakoa sentitzen ez duzunean. Ahoan duzun horren zaporea sentitu behar duzu, janariarena janaria duzunean, edariarena edaria duzunean. Elementu biak orekatzean lortzen da teknikoki maridaje perfektua.

- Zer da garrantzitsuena: produktua edo prestaketa?



Produktua %70ean eta prestaketa %30ean. Lehengaia garrantzitsua da, hurbilekoa izatea. Askok diote produktu txar bat ondo kozinatuz gero ez dela igartzen, baina lehengai txarra kozinatu ostean ere txarra egongo da.

- Fronton jatetxearen buruan zaude. Nola-koa da?

Denboraldikoak gara %100-ean. Orain 4-5 plater dauzkagu ehizaren gainean, adibidez. Denboraldi bakoitzari dagokion sukaldia eskaintzen dugu. Regileko sagarrak, babarrunak (hauek dira erreginak), neguko arrainak eta trufa daude, esate baterako, gure kartan orain.

JOXEAN EIZMENDI (Illarra Jatetxea):

“Edozein izan daiteke sukaldari handia”

- Roberto Ruizekin batera ibiliko zara sukaldean gaur eta zuek prestatutako afariak Muga ardoa izango du lagun. Nolakoak izango dira zerbitzatuko diren botila horiek?

Oso bereziak, merkatuan ospe handia du-



Joxean Eizmendi (eserita, eskuman), lan taldearekin.

tenak. Juan Muga, Muga arandegietako arduraduna nire laguna da, eta berarekin berba egin nuen maridaje jardunaldi hauetan ea zer egin genezakeen pentsatzeko. Barrikan legamiatutako 2005eko ardo zuria, ardo ondua, 2004ko erreserba ardoa, 2001eko Prado

Enea eta 2005eko Torre Muga zerbitzatuko ditugu. Oso kalitate altua duten ardoak dira.

- Nola moldatuko zara Roberto Ruizekin sukaldean?

Ondo, arazo barik. Bakoitzak menuaren zati bat egingo du eta ahal den heinean lagunduko diogu elkar. Zaila da bakoitzaren etxetik kanpo lan egitea, beraz, laguntza berebizikoa da.

- Zer da egintza honen helburua?

Gure produktu eta gastronomia hedatzea nahi dugu. Adibidez, Donostiako baten bat Krabeliñera joanez gero, jate-txea ezagutzeko balio izango dio eta, era berean, eibartar batek Roberto Rui-

zen edo nire sukaldaritza nolakoa den jakingo du, etorkizunean gurera etortzeko. Sukaldaritza tradizionala egiten dugu eta hemengo gastronomia ezagutaraztea da gure nahia.

- Zein eragin bilatu nahi duzue menuarekin?

Menu tradizionala goxoa izan daitekeela. Ardoaren kalitatea handia izango da, baina hauek ere klasikoak dira, beraz, horren araberako menua egingo dugu. Jendea gauza arraroetan sartzen da, baina menu batek goxoa izan behar du. Gurea tradizionala dela esango nuke, ukitu batzuekin.

- Nola definitzen zara sukaldari bezala?

Etxean amona eta amarekin ikasi nuen sukaldari izaten. Janaria goxoa egoten saiatzen naiz beti. Edozein platerrek ezin du galdu bere zapore primarioa. Sukaldean denbora eta goxotasuna behar da, baina baitaurretik ere, baratzean produktuak lortzen adibidez. Uste dut, bestetik, edozein izan daitekeela sukaldari handia.



Escuderia Eibarko hainbat ordezkari eurretako batzuei egindako harrera batean.

Eibarko zazpi ordezkari Bizkaiko Balkoiaren rallyan

DURANGOTIK ABIATUTA, BIHAR JOKATUKO DEN BIZKAIKO BALKOIAREN RALLYAREN 3. EDIZIOAN ESCUDERÍA EIBARKO ZAZPI BIKOTEK hartuko dute parte. Aitor Barruetak eta Jon Zuazuak osatutakoak, gainera, podiumaren gorenera heltzeko lehian jarduteko asmoa du eta onenekin jardutea espero dute ere Iban Tarsicio / Iñigo Peña eta Urtzi Beristain / Arkaitz

Olalde ekipoek. Irabaztearena ez da gauza erraza izango, Vilarriñotarrak (semea gidari eta aita kopiloto jardungo dute, Subaru Imprezza batekin) munduko rallyetatik ekarri duten autoarekin izango baitira. Guztira 80 talde izango dira irteera puntuan eta eskualdeko zale-tuek gertutik jarraitzeko aukera izango dute, tramo bi Elgetatik gertu jokatuko baitira, San Azentzio inguruetan.



Anaien arteko partida eibartarren arteko norgehiagoken aitzindari xakeko Gipuzkoako txapelketan

GIPUZKOAKO TXAPELKETA ABSOLUTUAREN BARRUAN, JULEN ETA HARITZ GARRO NOR BAINO NOR IZAN ZIREN ZARAUZTEKO BIGARREN JARDUNALDIAN eta Haritzek irabazi zuen. Defentsa siziliarra erabili zuten partidaren, 20 jokalditan erabaki zen lehia. Jardunaldi ona izan zen herriko xakelariarentzat, Jon Aranak eta Edu Olabek irabazi egin baitzituzten euren partidak eta Diego Olmok berdindu. Hirugarren jardunaldian, eibartarren arteko derbi bikoitza izango da: Haritz Garro vs Olmo eta Olabe vs Arana. Julen Garrok Javier Ladrón de Gebara zarauztarraren aurka jokatuko du.

Ferreiro Euskadiko azpitxapelduna squash-ean

KLUB DEPORTIBOKO BAZTORDE GAZTEENAK -AURTEN OSATUTAKO SQUASH MODALITATEKOAK- INDARTSU DABILELA ERAKUTSI DU eta Euskadi mailan zer esanik baduela erakutsi du beste behin. Horrela, Alberto Ferreirok Euskadiko txapelketako finala jokatuz asteburuar Arrasaten eta, partidu horretan amore eman zuen arren Markus Schwarz txapeldunaren aurrean, oso maila onean jardun zuen ordura arte. Txapelketa Arrasateko Musakola kiroldegian jokatuz zen eta senior mailan 32 jokalaririk izan ziren lehian. Eibartarra erraz heldu zen finalera, finalerdietan ere Bendikta Squash-Sestaoko Aitor Yanguasi 3-0 garaitu baitzuen. Jende asko izan zen final hori jarraitzen; Ferreirok, maila onean jardunda ere,



Ferreiro Klub Deportiboko ordezkaria, Markus Schwarz txapeldunarekin.

ezer gutxi egin izan zuen Schwarz alemaniarrearekin, azken honek aukerarik ere ez baitzion laga.

Eibar gimnastika erritmikoaren hiriburua izan zen beste behin

HIRU-LAU ASTEKO AURERAPENAREKIN JOKATUTAKO SAN ANDRES TORNEOAK MAILARI EUSTEN DIO eta ariketa bikainak ikusi ahal izan ziren zapatuan Ipuruako kiroldegian. Estatu osoko ordezkariak zabala izan zen gurean eta, hori gutxi balitz, Moskuko selekzioaren bisitarekin gozatzeko aukera paregabea eskaini zien bertaratutakoek. Herriko ordezkariak garaile izan ziren bai 1. mailan baita infantiletan ere; eta juniorretan zein seniorretan,

Donostiako Izar Lekukoak izan ziren onenak (Ipuruakoak 4.ak izan ziren seniorretan).

Urtea joan, urtea etorri, Ipuruako proba adierazgarria izaten da, batez ere, jarraian jokatzen den Espainiako txapelketari begira. Aurten hilabete baino gehiago geratzen da data horretarako, Valladoliden abenduaren 10etik 12ra arte jokatuko den estatu mailako probarako, baina Eibarren bildutako taldeek dituzten aukerak ikusi ahal izan ziren.



Moskuko selekzioa lanean.

Eibar KEren urteko batzarra egin zen atzo

MILIOI BI EURO INGURUKO AURREKONTUA ZEN AURKEZTEKOA EIBAR KE-KO ZUZEN-DARITZA TALDEA atzo arratsaldean Portalean egitekoa zen urteko batzarrean. Iazko 3'6 milioi-



rekin konparatuta, %45 inguru jaitsi dute aurten aurrekontu hori, maila galtzearekin batera sarre-
rak ere asko gutxitu direlako: bi milioi euro gutxia-
go jasoko ditu aurten Eibarrek, bai telebista esku-
bidetatik (1'3 milioi), bai Diputaziotik (480.000),
bai LFP-tik (300.000). Horrela, abonoek garrantzi
handia izango dute aurtengo denboraldiari aurre
egiteko; gaur egun, eibartarrek 3.000 bazkide in-
guru dituzte.

Guijuelon domekan jokatu beharreko partidua
arratsaldeko 17.00etan hasiko da eta Salaman-
cako herri horretan liderraren bisita Klubaren
Eguna egiteko aprobeztatuko dute. Partidurako
jokalari guztiakin kontatu ditzake Viadero entre-
natzailak; hori bai, Fali aurrelaria kirofanotik pa-
satu da eta aste batzuetarako baja izango da

Txoko eta Durango berdinduta lidergoan

AZKEN ASTEBURUAN EUREN ARTEAN JOKATUTAKO PARTIDUAK EZ ZUEN EZER ERABAKI eta bien arteko lehia berdinketarekin amaitu zen. Banako horrek lidergoan laga ditu talde biak eta puntu bira dago Areto, azken jardunaldian Jose Autosekin 7-0 galdu eta gero. Jose Autoseko azken hauek 13 puntu dituzte, Ez-Dok, Alkideba eta Tankemans bezala. Bihar eta etzi honako partidua jokatu dira: KOX Azkena - EzDok; Sinesponsor - Caserío; C.Dental - Somos Sporting; Esmorga - Tecnografik; Alkideba - Jose-Autos; Durango - Areto; eta Txoko - Tankemans

Julen Retegi eta Titinen artekoa domekan Astelenan

AURREKO ZAPATUAN AIMAR OLAIZOLARI IRABAZIZ EZUSTEKO HAN-DIA eman eta gero, pilota profesionaleko lau eta erdiaren barruko azken ligaxkako lehen jardunaldian, Julen Retegik Augusto Ibañez "Titín" izango du aur-



kari. Ez da izango hori domekan Astelenan kaio-
laren barruan jokatu den partidua bakarra, ja-
rraian 2. mailako beste bat ere izango baita joko-
an, Belloso eta Merinoren indarrak neurtuko di-
tuen. Jaialdia hasteko, Berasaluze IX.ak eta Zu-
bietak osatutako bikoteak Olazabalek eta Eulategi

osatutakoari egingo dio aurre frontoi guztian.

Afizionatu mailako jaialdia ere izango da Katedra-
lean. Gaur, 20.15etatik aurrera, Klubaren Arto-
torneo hiru partidua jokatu dira: kadeteetan, Ruiz (edo Larrauri) eta Andonegi

zestoarren aurka; jubeniletan, Agirresarobe eta Erik zarauzarren kontra; eta seniorretan, Unamunzaga-Agirrebeña, sailkapena jokoan, tolosarren aurka.

Anetxe - Universitari rugbia Unben


GETXOREKIN 22-10 GALDU ETA GERO, HIERROS ANETXE-

KO rugbilariek denboraldiko lehen garaipenaren bila jardungo dute domeka eguerdian Bartzelonako Universitari taldearen aurkako partiduan. Orain arte, eibartarrek puntu bakarrarekin daude sailkapenean; eta kataluniarrek, ostera, sei dituzte. Esperientzia ere kataluniarren alde dago, baina eibartarrek Getxon erakutsitako grinak bere emaitzak eman ditzazke neurketa garrantzitsu honetan.



Orbeako igerilekuaren estreinaldia waterpolistentzat

DOMEKAN, ARRATSALDEKO 14.30ETAN, HASIKO DU DENBORALDI BERRIA URBAT-URKOTRONIK WATERPOLOKO SENIOR TALDEAK, Euskal Herriko ligaren barruan Bizkaiko Náutica-Maristas taldea hartuta Orbea kiroldegian. Neurketa hori izango da eibartarrek euren herrian jokatu duten lehenengo partidua ofiziala, orain arte Ermuko kiroldegiko igerilekuan jokatu izan baitituzte partidua. Jardunaldi honetan ez ohiko ordutegian jokatu dute partidua, zapatuetako 20.30ak izango baita erabili den denboraldirako hurrengo partiduetarako.



Arratek bihar izango du Antequeran bide onera bueltatzeko aukera

BORROKA BEREAN DIHARDUTEN TALDEEN ARTEKO LEHIA izango da bihar **ARRATSALDEKOA ANTEQUERAN**. 18.30etan hasiko da partidua eta Julian Ruizen mutilek Ipuruan azken jardunaldian Cuenca 2016 taldearekin galdutako puntuen bila kantxa-

ratuko da. Talde joko hobetu beharko du Arratek, azken lau jardunaldietan puntu bakarra eskuratu baitu. Partidurako Obrvan kroaziarra da zalantza bakarra, garrantzitsua batez ere, eibartarren artean jokalaria garaiena izanda, defentsan egiten duen lanagatik.

Erreleboa egon da Cielito musika bandaren zuzendaritzan. Jorge Molinak Carlos Sanchez-Barba zaldibartarrari eman dio bandaren makiltxo. Molinak Cielitora eramandako modernizazioaren bidetik jarraituko du Sanchez-Barbak, baina bere ukitu pertsonala ematen saiatuko da.



CARLOS SANCHEZ-BARBA, musikaria:

"Konpositore euskaldunen musika gehiago landuko dugu"

- Pare bat aste daramatzazu Cielito musika bandaren zuzendari. Nolakoak izan dira lehen egun hauek?

Ofizialki ezin da esan zuzendaria naizenik, momentuz ordezeko bezala nagoelako. Joan den astean zuzenduen lehen kontzertua eta ondo joan zen. Urduri nengoen, izan ere, hor goian egotea beste gauza bat da, baina egingen nuen horretan zentratu eta ondo joan zen dena.

- Banda, gutxienez, ez zen ezezaguna zuretako.

Bandaren partaidea izan naiz orain arte, baina ez da gauza bera instrumentu bat jo edo musikariak zuzendu. Ikuspuntu ezberdinak dira: musikaria zarenen zurekoia goa zara. Zuzendaria zarenen, bestetik, guztietaz arduratu behar zara.

- Zergatik aukeratu zintuzten zuzendari?

Jorge Molina zuzendari zenean ni nintzelako zuzendari-ordea; beraz, oinordetza kasua eman da, erregeekin ematen den bezala (barreak). Orain musikariak nire lana baloratu beharko dute. Ondoren, abendu aldera bozkatu egingo dugu zuzendaria aukeratzeko, baina tira, ni izan naiteke, inor ez baita korrika etorri bere izena ematera (barreak).

- Bandari zure ukitu pertsonala eman nahi diozu?

Bai. Gure zaleak normalean nagusiak dira, baina ezin ditugu alde batera laga abesti modernoak. Konpositore euskaldunen piezak gehiago lantzen saiatuko gara, musika herrikoia egiteko ahalegina egingo dugu eta gai klasiko ezagunak ere. Denetarik egotea da asmoa, baina hemengo musikan, Euskal Herriko konpositoretan, zentratuta.

- Zein egoeratan aurkitzen da, gaur egun, Cielito?

Lan ona egin da gazteak erakartzeko. Musika Eskolatik gazte asko etorri da; era berean, gazteak izanik, ikasketak eta abar egiten dihardute, eta musikalki oraindik garatu gabe daude. Baina oso lan ona egiten dute eta amua bezalako dira jendea erakartzeko. Bestetik, pertsona nagusiagoak ere badaude Cieliton, oso fidelak eta beti hor daudenak.

- Nola baloratuko zenuke Jorge Molinaren lana?

Lan garrantzitsuena Cielito modernizatzen egin du. Berak ere egun batetik bestera hartu zuen zuzendaritza, eta pelikulen musika, musika dantzagarriak edo batera bezalako elementuak gehitu zizkion. Gainera, kontzertuetatik at, Cielito asko dinamizatu zuen.



198 perretxiko mota ikusgai

KLUB DEPORTIBOKO MENDI TALDEAK ANTOLATUTAKO XI. JARDUNALDI MIKOLOGIKOEK BERRIZ ERE JENDE UGARI ERAKARRI ZUTEN ASTEBURUAN, EGURDIA LAGUN. Zapatuan 8 eta 14 urte bitarteko 85 ume perretxikoak batzera joan ziren, Deporreko mendizaleek lagunduta. Autobus bitan banatu zituzten haurrak, batzuk Marieta ingurura eta besteak Lizarrusti ingurura eramateko. Goiz osoa mendian eman ondoren, pozarren itzuli ziren guztiak, 198 mota ezberdinetako perretxikoekin. Arratsaldean Aranzadi zientzia elkarterko kideek perretxikoak garbitu eta sailkatu ondoren, domeka goi-

zean Torbio Etxebarria kalean ikusgai ipini zituzten. Erakusketari laguntzen, txanpi-degustazioa egon zen eta salmentan batutako dirua Lagun Taldeari emango diote jardunaldietako antolatzaileek. Horrez gain, perretxikoak batzen ibili ziren ikasleen artean hainbat sari banatu zituzten. Parte hartu zuten ikastetxe bakoitzetik talde bana saritzeaz gain, Aldatzeko talde batek sari berezia jaso zuen, perretxiko mota oso arraroa (Boletus Gentilis) topatzeagatik. Urkizuko Danel, Aitor, Asier eta Jorgek osatutako taldeak aurkezpen onenari saria jaso zuen. Eta lanik didaktikoena La Salleko Anderrek egin zuen.



Zapatuetako Tailerrak familia giroan

UDALAK, IKASTETXEEN LANKIDETZAZ ANTOLATUTAKO ZAPATUETAKO TAILERRAK EGITASMOAN 111 LAGUNEK DIHARDUTE PARTE HARTZEN. Eskolaz kanpo ume eta gazteen artean euskeraren erabilera sustatzea helburu duten ikastaroak haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako guraso eta umeentzat antolatzen dituzte eta hiruhilabeteko honetan 8 tailer daude martxan: eskulanean inguruko hiru, dantzaren inguruko bi eta lora sikuen inguruko hiru.




"Zer duzu negarrez, Marie?"

Antezlan bana zapatu eta domekan

HILEROKO MARTXARI HELDUTA, COLISEOAK UMEENTZAKO ANTEZKIZUN BAT ETA HELDUENTZAKO BESTE BAT ESKAINIKO DITU. Zapatuan, 17.00etan Marie de Jongh Antzerki Taldeak 'Zer duzu negarrez, Marie?' izenburuko lana taularatu du. Txotxongiloak eta aktoreak nahasten dituen ikuskizunak 50 minutuko iraupena du eta familia osoarentzat aproposa da. Sarrerak 4 euro balio du. Eta domekan, 20.30etan, Familie Flöz konpainiak 'Teatro Delusio' ikuskizuna eskainiko du, bere lanik berriena. Sarrerak 16 eurotan daude salgai.



Familie Flöz konpainia.



Magostoak

AS BURGAS GALIZIAKO ETXEA MAGOSTO JAIA ANTOLATU DU ASTEBURURAKO: ZAPATU ARRATSALDEAN ETA DOMEKA GOIZEAN Urkizuko parkean gaztaina errearekin salgai ipiniko dituzte, Ribeiro ardoarekin batera. Salmentan jasotako dirua Os Galaicos Galiziako Etxeko folklore-taldearentzat izango da. Domekan, 12.00etatik 13.00etara gerturatzen diren umeentzat doan izango dira gaztainak.

Bestalde, AEK Euskaltegiak Udalaren laguntzarekin antolatutako Gaztainerren inguruko ospakizuna azaroaren 16an egingo da: 'Odra janak tabernaz taberna' izenburuari jarraituta, 19.00etan kalejira eta afari-merienda egingo da Paloma tabernan.

Alberto Iñurrategi 'Illunabarrian'

EGUAZTENEAN, ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN 'ILLUNABARRIAN' PROGRAMAREN BARRUAN, DIAPORAMA ESKAINIKO DU ALBERTO IÑURRATEGI MENDIZALEAK. 'Begiz-begi' izenburuko emanaldia Portalean izango da, 19.00etan. Dokumentala euskeraz emango dute, gaztelerazko azpitituluekin. Munduko hainbat gailurretan hartutako irudiak zuri-beltzeko sekuentziekin tartekatuko dira, Koldo Izagirrenen testuekin eta Francisco García Álvarezekin musikarekin lagunduta.



Indalezio Ojanguren sariak Portalean ikusgai

AURREKO BARIXAKUAN BANATU ZITUZTEN Indalezio Ojanguren XXII. Argazki Lehiaketako sariak, Portalean. Saritutako lanak eta beste hainbat azaroaren 15era arte ikusteko moduan izango dira, erakusketa aretoan, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

laburrak

1937-AN JAIO TAKOAK

Urte horretan jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 14an: 12.00etan Untzagan elkartuko dira, talde-argazkia ateratzeko. 13.00etan Peña Txinberan piskolabisa hartu eta 15.00etan Arrate hotelean bazkalduko dute. Bazkalostean musika eta dantzaldia izango dira. Joan nahi dutenek azaroaren 11rako 50 euro sartu beharko dituzte Kutxako kontu korronte honetan: 2101 0035 160127075661.

PEDRO ALBERDIREN LIBURUA

Bilboko Udalak eta Alberdania argitaletxeak Pedro Alberdiren 'Carlos esaten zioten gizona' liburua eman dute argitaratu. Lanak Miguel de Unamuno entsegu saria eskuratu zuen 2006an, euskerazko atalean. Liburuak 50. eta 60. hamarkadetako Eibarko gizartearen ingurukoak jasotzen ditu, Mario Onaindiaren figura ardatz duela.

ESTHER GALARZA BARTZELONAN

Global Art Bartzelonako galerian zabaldu berri duten taldekako erakusketan parte hartzen dihardu Esther Galarza artista eibartarrak. Urtarrilaren amaierara arte ikusi ahal izango dira bere zeramika-artelanak, beste 20 bat artistaren lanekin batera.



Naiara
Azpeitia

Industriaren krisi-kraziak

Ziur azken urtean irakurri dituzuela horrelako titularrak. Industriak bizi duen krisiak jota gaude guztiok, zuzenean etxean gaudelako inoiz izan ditugun hobiak praktikatzan, edo lanean, baina krisiaren mamuak eragindako depresioarekin erabat aztoratuta. Gure enpresek negozio bolumena jaitسي dute eta gure industria krisian dago, eta guztiak gaude oso goibel eta laguntzeko prest. Administrazioak ere dagoeneko ez daki zer egin hauei laguntzeko eta, bide batez, tantoak irabazteko. Ez dago beste solasaldirik kalean. 2009. urtean jaiotako haurrek ere *aita, ama, kaka eta krisi* esaten ikasi dute ezer baino lehen, eta ez dakit lehenengo postua ez duen hartuko azken berba honek horrela jarraituta. Aspergarria bai, baina indar handikoa ere bada parada hau. Laino beltz honek erabat ilundu du errealitatea-eta. Selektiboak egin gara bapatean, industria guztiak ez baititugu lagundu nahi. Autoak egiten ari diren enpresak bai, euren eskalan izugarriko garrantzia dute eta; bilerak egin han eta hemen Foru Aldundiarekin, Industria Sailarekin eta eskupeko politarekin bueltatzen dira euren super-fabrikara, urtea behintzat hobe amaitzeko. Publizitatean eta komunikazioan diharduen agentziak ere jotzen ditu atek, baina barre egiteko erantzunak jasotzen ditu bakarrik: *“Badakizu, enpresak gaizki dabilta eta aurrekontuetatik ateratzen duten lehena publizitatea da”*. Autoen industria zergatik dagoen krisian galdetzen diot nire buruari orduan; ez dakit ba ez den erantzun bera izango. Diskriminazio sektorialaren sasoa bizi dugu betidanik eta egoera larri honek justifikatu egiten du gainera. OHARRA: Lerro hauetan kontatutakoa fikzio hutsa da, eta zure lan errealitatea islatuta ikusten baduzu, ez ahaztu kointzidentzia bat besterik ez dela.

Herriko denda euskaldunen katalogoa osatu dute

EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIAK, ‘EUSKARAK ERE SALTZEN DU’ EUSKARA PLANAREN BARRUAN, urtero udan egin ohi duen kartel-kanpainari ekintza berri bi gehitu dizkio, *“bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko helburuarekin”*. Barixakuan EMGI elkarteko ordezkariak eta euskara planaren arduradunek eskainitako prentsaurrekoan aurkeztu zituzten ekimen berriak: alde batetik, jendea euskaraz atenditzeko moduan herrian dauden dendak (128) jasotzen dituen katalogoa osatu dute. Denda horiek eguneroko hartuemanetan bezeroekin euskara ere erabiltzeko konpromisoa hartu dute. Katalogoak denda horietan, Pegoran, Portalean eta Ipurua kiroldegian laga dituzte, nahi duenak hartzeko moduan. 4.000 ale eman dituzte argitara.

Bestalde, dendako mostradoreetan ipintzeko karteltxoak egin dituzte: alde batean *“Nahi baduzu, euskaraz”* esaldia eta bestean *“Nahi baduzu euskaraz, bai-*



128 denda daude herrian euskaraz atenditzeko moduan, katalogoan agertzen denez. / SILBIA H.

na poliki” irakur daiteke adierazgarrietan. Urte hasieran lehiaketa bitartez aukeratu zuten euskara eta merkataritza lotzen dituen logotipoa ere txertatu diete katalogo zein karteltxoekin.

Euskara planari jarraituta

EMGI elkarteak 2006ko maiatzean ekin zion ‘Euskarak ere saltzen du’ euskara planari, Udalarekin elkarlanean. Plana beharrezkotzat jo zuten, Eustaten 2006ko datuei erreparatu eta gero: *“Eibartarron %51’78 euskalduna eta %14’69 ia euskalduna da, hau da, guztira %66tik gora (herritarren heren*

bi baino gehiago). Horrez gain, kontuan izan behar da Eibarko merkataritza establezimenduen %65’3an badagoela norbait bezeroei euskaraz arreta emateko moduan”. Planari jarraituta, gure bailarako errealitate linguistikoari erantzun nahi dio elkarteak.

EUSKARAREN

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN EUSKARAZKO HIZTEGIA.

Elhuyar zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa aurkeztu du Elhuyar Fundazioak. Euskaraz argitaratutako lana Elhuyar Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateak osatu dute elkarlanean eta Euskadiko Kutzaren babesia izan du. 50 alorretako informazioa eskaintzen du, sei ataletan multzokatuta: zientzia zehatzak, materiaren eta energiaren zientziak, luraren zientziak, bizia- ren eta osasunaren zientziak, teknologia eta gai orokorrak. Lanak 2001. urtean du abiapuntua, proiektu zehatza orain hiru urtetik hona garatu arren. 1.836 orrialdeko obra bakarrean bildua, 23.000 kontzeptu biltzen ditu hiztegiak, eta kontzeptu bakoitza bere definizioarekin eta ingelesezko, gaztelaniazko eta frantsesezko terminoekin ageri da. 200dik gora adituk jardun dute material hori *“euskaraz burutik burura egiten”*, hau da, ez da ezer itzuli.

TXOKOA




Seguridad Social taldearen kontzertua

ASTELENA FRONTOIAK SEGURIDAD SOCIAL TALDEAREN KONTZERTUA HARTUKO DU AZAROAREN 28-AN, 22.30etatik aurrera. Lambretta Elkarteak antolatutako emanaldiako sarrerak aldeztu aurretik erosteko aukera dago (20 euro) Birjiñape, Tupi-Azpi, Arno,


Terraza, Caserio eta Trinkete tabernetan, Ayerbe liburudendan, Ermuko Xagua tabernan, Elgoibarko Lanbroa eta Kaian, eta Durangoko Horse-n. Egunean bertan txarteldegian 24 eurotan salduko dituzte sarrerak. Informazio gehiagorako 943751035 telefonora deitu.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, LOREA
Penedo Aiastui, bixar urte bi egingo dozuz eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Jonen partetik.



Zorionak, INGE
Aranburu Lasa, zure lehelengo urtebetetzian. Patxo haundi bat gure larrosari, aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, XABIER,
hillaren 4an urtebete egin dozulako alaitasunez beteta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, GANIX,
astelehenian hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat amatxo eta aitatxoren partez.

zinea Coliseoan

6an, 22.00etan; 7an, 19.30 eta 22.30etan
8an, 20.00etan; 9an, 20.30etan

"La caja de Pandora"


Zuzendaria: Yefim Ustaoglu
Aktoreak: Tsilla Chelton, Derya Alabora, Onur Ünsal, Övül Avkiran...



Hiru anai-arreba amaren bila joan beharko dira, desagertu egin baita. Ordura arteko arazoak alde batera lagatzea dute helburu, baina uste baino gutxiago elkar ezagutzen dutela ikusiko dute. Horren arrazoia zein den aztertzeko aukera ederra...

"Gordos"


Zuzendaria: D. S. Arévalo
Aktoreak: Antonio Torre, Roberto Enríquez, Verónica Sánchez, Raúl Arévalo...



Bost istorio ezagutzeko aukera izango dugu. Pisu larregi duen bosteko taldeak terapia egiten dihardu, baina terapiaren helburua ez da argaltzea, euren loditasunaren arrazoia zein den ezagutzea baino...

"El secreto de sus ojos"


Zuzendaria: J.J. Campanella
Aktoreak: Ricardo Darín, Soledad Villamil, Pablo Rago, Javier Godino...



Benjamin epaitegiko langile jubilatu berria da; eleberria idaztea erabaki du eta horretarako 1974. urtean bizitakoa hartu du ardatz: Ricardoren emaztea hil berri dute, bortxatu eta gero. Benjaminek eta Ricardok geratutako argitu nahi dute...

Ego Ibar

"El primer día..."
Zuzendaria: Rémi Bezançon
Aktoreak: Jacques Gamblin, Zabou Breitman, Déborah François, M.-A. Grondin...



Azkenengo hamabi urteetan familia bateko bost kideek bizitako bost egun garrantzitsuenei errepassoa egiten die filme honek. Aitak, amak eta hiru seme alabek bizitako egun horrek ezagututa, pertsonaiak eta euren arteko harremanak ezagutuko ditugu...

DENBORAPASAK

SUDOKUA

6		9		2			3	
				9		5		
5				1				7
8	4	1	2		3	6	7	
9		6						
2								4
3		8				9	4	5
4	9		5					1
	1			8				

3	9	4	6	2	7	8	1	5
5	8	2	9	3	1	4	7	6
1	7	6	5	8	4	3	9	2
8	2	7	4	9	5	6	3	1
9	5	3	1	6	8	2	4	7
6	4	1	3	7	2	9	5	8
4	1	8	2	5	9	7	6	3
7	9	9	8	1	6	5	2	4
2	6	5	7	4	3	1	8	9

AURREKOAREN EMATZA

JAIOTAKOAK

- Jokin Larreina Martínez. 2009-X-23.
- Ubay Gebari Acosto. 2009-X-23.
- Julen Sáenz Gil. 2009-X-25.

HILDAKOAK

- Carmen Etxaluze Azpiazu. 97 urte. 2009-X-29.
- Agapito Amorrosta Apraiz. 84 urte. 2009-X-29.
- Felix Larrañaga Zubiaurre. 92 urte. 2009-X-31.
- Angela Quintana Francés. 82 urte. 2009-XI-1.

horoskopoa

ARIES

Norbaiten zirrikak jasan beharko dituzu, baina ez ditu batere graziarik egingo. Burua galduz gero, edozer gauza egiteko kapaz zara.

TAURUS

Orain lehen baino lehenago iluntzen badu ere, egunak 24 ordu izaten jarraitzen ditu. Beraz, ez daukazu aitzakiarik gauza guzti horiek egiteko.

GEMINI

Konturatu zara Gabonetako argiak kalean kokatu dituztela? Beti kontu bera, gero eta lehenago ipintzen dituztela eta abar... Ona izan zara?

CANCER

Ez baduzu lortzen zuk nahi duzuna, ez zaude konforme. Jakizu beti ezin izango duzula nahi duzuna lortu. Eta orduan zer? Haserretu egingo zara?

LEO

Argi berezia izango duzu aste honetan. Zure bidea argituko duen eta ingurukoak gidatuko dituen. Ea amatatzen ez zaizun.

VIRGO

Zer axola dio modu batean edo bestean deitzea? Gauza da eginda dagoela eta zuk onartu egin beharko duzu, zer erremedio!

LIBRA

Zerbait botako duzu faltan, baina ez duzu jakingo zer. Pertsona bat ahaleginduko da azalpena ematen, baina ez diozu entzungo.

SCORPIUS

Bereziki gosetuta ibiliko zara. Ez da egongo aseko zaituen jakirik, jateko gogoia aldamentetik ezin kenduz. Zure tripek ederki sufrituko dute.

SAGITTARIUS

Ez baduzu gustuko, zergatik egingo duzu? Ezetz esaten ikasi behar duzu. Umore txarrez ibiliko zara kontu honegatik, baina ikasiko duzu.

CAPRICORNIUS

Arlo ekonomikoan berri ezinhobeak jasoko dituzu. Galdutzat ematen zenuen dirua berreskuratuko duzu. Horrekin zer egin dezakezu?.

AQUARIUS

Zure erabaki batek gauzak aldrebestuko ditu, baina zure zorionerako amaiera ona izango du kontuak. Beste baterako argiagi ibili.

PISCIS

Barrenean minduko zaituzte eta kostako zaizu barkatzea. Badakizu ez duela intentzio txarrarekin egin, baina izan dezala kontu gehiago.

Barixakua 6**KONTZERTUA**

18.00.- Musta, Marokoko musika-kontzertua. Liburutegian.

Zapatua 7**IKASLE EGUNA**

10.30.- Ikasle Eguna Arrasaten (topaketak, bazkaria, kontzertuak...).

DENDA MUSUTRUK

12.00.- *"Nahi baduzu ekarri edo nahi baduzu eraman"*, Tallarra gaztetxeak antolatuta. Urkizuko parkean (euria bada, Azpirineko arkupeetan).

MAGOSTOAK

Arratsaldez.- Gaztaina erreak eta Ribeiro ardoa salgai. Urkizun.

ANTZERKIA

17.00.- *"Zer duzu negarrez, Marie?"* (Marie de Jongh antzerki taldea). Sarrera: 4 euro. Coliseoan.

Domeka 8**RASTRILLO**

10.00.- San Kristobaleko rastrilloa. Ipuruko bolatokian.

MAGOSTOAK

11.00.- Gaztaina erreak eta Ribeiro ardoa salgai (12.00etatik 13.00etara umeendako doan). Urkizun.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- *"Vamos a la luna"*. Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

ANTZERKIA


20.30.- *"Teatro Delusio"* (Familie Flöz taldearekin). Sarrera: 16 euro. Coliseoan.

Astelehena 9**IKASTEN**

17.00.- Sendabelarren Foroa. Gabriel Vázquez Molinaren hitzaldia. Portalean.

HITZALDIA

19.30.- *"Kultura garapen sozialaren eta norbanako garapenaren zerbitzura"*, José M^a Setiénen eskutik. Portalean.

**Martitzena 10****IKASTEN**

10.00.- *"Viajes a larga distancia: una visión diferente"*, Gloria Latasaren hitzaldia (Kutxarekin elkarlanean). EPAñ (Isasi, 39).

BEHEKO TOKIA

12.00.- Beheko Tokiaren XIV. urteurrena. Toka eta igel-toka txapelketa.
16.30.- Mus eta tute txapelketa. Beheko Tokia jubilatuko etxean.

Eguaztena 11**JARDUNALDIA**

16.30.- Turismorako Praktika Onen programaren aurkezpena. Debegesan.

BEHEKO TOKIA

17.00.- Beheko Tokiaren XIV. urteurrena. Kina berezia, sari bereziekin. Beheko Tokia jubilatuko etxean.

ILLUNABARRIAN

19.00.- Alberto Iñurrategiren *"Begiz begi"* ikus-entzunezkoa eta hitzaldia. Portalean.

Eguena 12**IKASTEN**

09.00.- Oñatira irteera, Satur Peñak gidatuta bertako arkitektura ezagutzeko. Egogaineko autobus geltokitik.

BEHEKO TOKIA

17.30.- Beheko Tokiaren XIV. urteurrena. Txokolate-jana, bizkotxoekin.
18.30.- Kontzertua, Juan Luis Anasagasti tenorearekin. Beheko Tokia jubilatuko etxean.

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- *"El primer día del resto de tu vida"* (Zuz: Rémi Bezançon). Sarrera: Euro 2. Hezkuntza Esparruan.

IKASTAROA

19.00.- Biodantza klase irekia, Arrateko Andra Mari ikastetxeko gimnasioan (sarrera 10 euro).


**ANTZERKIA:**

"Zer duzu negarrez, Marie?". Azaroak 7, 17.00etan.

"Teatro Delusio". Azaroak 8, 20.30etan.

DANTZA:

"Look". Azaroak 13, 20.30etan.



erakusketak

- Azaroaren 15era arte

SOS ARRAZAKERIAren 'Geureak ere badira adingabe horiek' erakusketa. *Portalean.*

INDALEZIO OJANGUREN XXII. ARGAZKI LEHIAKETAko argazki erakusketa. *Portalean.*

ESTHER FERNANDEZ DE MARURIren margo erakusketa. *Topalekuan.*

ikastaroak

- Menpekotasuna daukatenen senitartekoentzat prestakuntza.

Noiz: Azaroaren 10ean eta 12an, Egogain Zaharren Egoitzan, 15.00etatik 18.00etara. Izen-ematea: Azaroaren 6ra arte, Pegoran.

- Eramateko janaria prestatzeko ikastaroa.

Noiz: Azaroaren 17tik aurrera, martitzen eta eguenetan, 19.00etatik 21.00etara Portalean. Eskakerak: Azaroaren 13ra arte, Pegoran.

- Autodefentsa ikastaroa (emakumeentzat).

Noiz: Abenduaren 19an, goiz eta arratsalde, Ipurua kiroldegian. Izen-ematea: Azaroaren 27ra arte, Pegoran.

lehiaketak

- San Andres bertso-paper lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Azaroak 6ra arte. Informazioa: ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 - solairuartea).

- Mendiko argazki lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Azaroaren 26ra arte, Morkaiko Elgoibarko Mendizale Elkartearen egoitzan edo morkaiko@morkaiko.net helbidean. Informazioa: www.morkaiko.net

- 18. Amodiozko Gutunen lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilaren 7ra arte, Jardun Euskara Elkarte (Errotalde jauregia z/g. 20.570 Bergara). Informazioa: www.jardun.net edo 943763661 telefono zenbakian.

diru-laguntzak

NAZIOARTEKO LANKIDETZARENTZAT 2009.

Eskakerak: Azaroaren 18ra arte, Pegoran.

ELKARTASUN BEKAK 2009.

Eskakerak: Azaroaren 20ra arte, Pegoran.

UMEAK ESKOLARA 2009. Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994-I-1etik 2003-XII-31ra bitartean jaiotako umeak. Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984-I-1etik 1993-XII-31ra bitartean jaiotakoak). Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

famaziak

6, barixakua

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

7, zapatua

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

8, domeka

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

9, astelehena

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

10, martitzena

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

11, eguaztena

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

12, eguena

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

13, barixakua

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.50, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.50. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiko). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiko. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.15etatik 21.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Zaldibarren pisua salgai. 90 m². Sartzeko moduan. 24.000.000 pezeta. Tel. 946-820458 edo etxeasal@live.com

1.2. Errentan

– Eibarren pisua hartuko nuke alokagai. Tel. 646-662911. Felicia.
– Logela alokagai Eibarren. Tel. 669-175981.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 690-980846.
– Bikote arduratsua Donostian pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 616-813097.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Alokagai

– Otaola Hiribidean 60 m²ko lokala alokagai (emergentziatzeko-argiak, sutearen aurkako atek, extintoreak...). Tel. 635-734261.
– Lokala Eibarren alokagai. 180 m². Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.
– Garaje marra alokagai Urkizun. Tel. 609-453946.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da edozein garbiketa lanetarako. Tel. 687-114707.
– Erizain tituluduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 649-008036.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile, garbitzaile edo zaintzaile moduan. Tel. 610-545505.
– Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan edo etxeko lanetarako. Tel. 943-108403.
– Mutila eskaintzen da autonomo moduan eraikuntzan jarduteko. Erreferentziak. Tel. 605-800582.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 626-329979.
– Emakumea eskaintzen da 15.00etatik aurrera ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Tel. 691-532893.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 666-008974.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 619-176223.
– Mutila eskaintzen da kamioi, C eta garraio publikorako karnetekin. Tel. 663-656621.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-482478.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 697-702158.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez, gauz edo asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 662-252150.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 699-653874. Cristina.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 664-881835.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-966611.
– Emakumea eskaintzen da astelehenetik ostegunera goizez lan egiteko (kamarera moduan, garbitzen... Tel. 680-223378. Gina.
– Mutila eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-198411.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-250527.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu, pegorak garbitu edo baserrian lan egiteko. Tel. 648-196651 edo 652-047223.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Esperientzia. Tel. 608-147559.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 670-831279.
– Gizona eskaintzen da astelehenetik ostegunera garbiketa lanetarako. Tel. 635-048037.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Interna edo externa. Tel. 675-421933 edo 666-771151. M^o Estela.
– Neska eskaintzen da arratsaldez umeak zaindu edo kamarera lanetarako. Tel. 697-939085.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-171583 edo 608-474923.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu, sukaldari-laguntzaile moduan eta abarretarako. Tel. 690-156040.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 678-305927.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 663-786976.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 610-936839.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 638-938307.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 691-692964.

4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 943-254060.
– Andra euskalduna behar da nagusiak zaintzeko. Interna. Gidatzeko karnetarekin. Tel. 649-167208.
– Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 685-738435
– Kamarera behar da egun osoz lan egiteko. Kontratuarekin. Tel. 653-019962.
– ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Akademia batean irakasleak behar dira: bat Matematikak eta Fisika eta Kimika emateko eta beste bat Ingeleserako. Tel. 652-763264 edo centrobart@gmail.com
– Neska euskaldunak klase partikularrek emango lituzke. Tel. 617-844142.
– Akademia baterako irakaslea behar da (Inglesa, Matematikak, Fisika eta Kimika, eskolarako laguntza). Tel. 652-763264 edo m.urteagamv@hotmail.com

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bebe-car kapazoa eta silla salgai. Tel. 616-801304.
– Ileapaindegiko altzariak salgai. Tel. 615-700184 edo www.ebay.es

DEITU. 943 20 67 76
943 20 09 18

Argazkidendak • Argiztapenak • Arzteak • Arzteak • Arzaindegia •
• Aseguruak • Aseoriak • Autokar • Autokar • Autokar • Autokar •
• Bidaiak Bideo erreportaiak • Bideo klubak • Bixitegiak • Bulego tresneria
• Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitatea • Elektrodomestikoak • Elkarteak •
Eraikuntza • Errehabilitazioa • Erreformak • Errotulazioa • Estankoak • Este-
tika • Farmaziak • Ferreteriak • Fotokopiadendak • Fruitategiak • Funera-
riak • Garagardotegiak • Garraioak • Gasolindegiak • Gozokiak • Gozo-
tegiak • Grafikagintza • Harategiak • Hautzaindegia • Euskaltegiak •
Ikastetxeak • Hotelak • Igeltseroak • Ileapaindegia • Industria • Informa-
tika • Inmobiliariak • Inprenta • Iturginak • Janaridendak • Jantxidendak •
Jatetxeak • Jostailudendak • Kafetegiak • Kalefakzioa • Kiroidendak • Kol-
txoidendak • Komunikabideak • Komunitateak • Konpresoreak • Konstruk-
zioa • Kristaldegia • Leihoak • Lenzeria • Liburudendak • Loradendak •
Makina saltzaileak • Margoak • Makinak • Masajeak • Medikuntza • Ana-
lisi klinikoak • Dermatologia • Dietetika eta nutrizioa • Errekonozimenduak
• Fisioterapia • Logopedak • Oftalmologia • Otorrinoak • Podologia •
Psikiatria • Psikologia • Mertzerial-
giak • Optika • Ortopedia • Pertsia-
• Prentsa eta aldizkariak • Publizitate
Tabernak • Tapizeriak • Tatuajeak eta
terapiak • Torrijugintza • Zeramika •

Zure aukera bakarra!

2010eko
GIDA
prestatzen
dihardugu...



**Klase teoriko
zein praktikoak**
norberak nahi
dituenean

Klase teorikoak
**ikusentzunezkoen
abantailak**
erabilita

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak

**GIDATZEKO
KARNET
GUZTIAK**


SOLOZABAL
autoeskolak

**Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78**

BERRIA: T. Etxebarria, 7 Tel. 943 70 23 84




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK